# 2022ko SANTA LUTZI FERIA

**PRODUKTU SALMENTARAKO ARAUDI OROKORRA**

**2022ko abenduaren 13an,** Zumarragan ospatuko den Santa Lutzi azokarako postuen banaketa, honako oinarrien arabera egingo da:

**1.- Kokapena eta ordutegiak.**

**Lekua:** antolatzaileek guneak produktuen arabera finkatuko dituzte. Zenbait kokapenen kasuan, antolatzaileek eurek instalatuko dituzte saltokiak. Hori horrela denean, eskatzaileari berari aditzera emango zaio, saltokia uzten zaion unean.

**Ordutegia**: saltokiek eta saltzeko produktuek 09:00etarako jarrita egon beharko dute. Ezin izango da 07:00ak baino lehen saltokirik muntatzen hasi, eta 20:00etarako jaso beharko dira. (*)

(*) - Euskadi plaza: probalekuan jarriak 15:00ak baino lehen jaso beharko dira; besteen kasuan, 16:30etik 20:00ak bitartean ez dute ibilgailuz ibiltzerik izango.

- La Salle, Urdaneta, Iñigo de Loiola: saltokia bezperan jarri ahal izango da, 18:30etik aurrera, edota abenduaren 13an bertan, 06:00etatik aurrera; saltokiak 18:00etarako jaso beharko dira.

**2.- Izen-ematea:**

**Epea:** 2022ko irailaren 12tik, astelehena, irailaren 30era, ostirala, 14:00k arte.

**Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

1. Eskabide orria egoki osatuta.
2. NAN, AIZ edo IFKren kopia, pertsona juridikoen kasuan, edo Europar Batasuneko beste estatu kideren batean emandako antzeko frogagiria.
3. Zerga betebeharren (Ogasuna) ordainketan egunean egoteari buruzko ziurtagiria eguneratua. Dokumentua eskatzailearen izenean egon beharko da, ez da onartuko enpresaren izenean egotea, eskatzailea pertsona fisikoa bada.
4. Gizarte Segurantzarekin ordainketan egunean

# *FERIA DE SANTA LUCÍA 2022*

***NORMATIVA GENERAL VENTA DE PRODUCTOS***

*Con motivo de la feria de Santa Lucía, que se celebrará en Zumarraga el **13 de diciembre del 2022**, la adjudicación de puestos se realizará en base a esta Normativa:*

***1.- Ubicación y horarios.***

***Ubicación:** diversos puntos establecidos por la organización en función del producto. Dependiendo de la ubicación los puestos de venta serán instalados por la organización, lo que se notificará al solicitante en el momento de concesión del puesto.*

***Horario:** los puestos y productos para la venta deberán estar colocados para las 9:00 horas. No se podrá empezar a montar antes de las 7:00 h. y se deberán recoger para las 20:00 horas. (*)*

*(*) - Plaza de Euskadi: los ubicados en el empedrado deberán estar recogidos para las 15:00 h.; los demás, no podrán circular con vehículos entre las 16:30 y las 20:00 h.*

*- La Salle, Urdaneta, Iñigo de Loiola: podrán colocar el puesto la víspera a partir de las 18:30 h. o el mismo día 13 a partir de las 6:00 h. debiendo recoger para las 18:00 h.*

***2.- Inscripción:***

***Plazo:** del 12 de septiembre, lunes, hasta el 30 de septiembre, viernes, hasta las 14:00 horas.*

***Documentación a presentar:***

1. *Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.*
2. *Copia de DNI, NIE o CIF, del solicitante, o documento acreditativo análogo expedido en otro Estado miembro de la Unión Europea.*
3. *Certificado actualizado de estar al corriente en el pago de sus obligaciones fiscales (Hacienda). El documento debe de estar a nombre del solicitante, no se aceptará documentación a nombre de la empresa, si el solicitante es una persona física.*
4. *Certificado actualizado de estar al corriente en el pago de sus obligaciones sociales*

egoteari buruzko ziurtagiria eguneratua. Dokumentua eskatzailearen izenean egon beharko da, ez da onartuko enpresaren izenean egotea, eskatzailea pertsona fisikoa bada.

5. Jarduera ekonomikoaren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruaren agiria osatuta eta aseguru etxeak sinatuta (Udalak eskura jarritako agiria), edo poliza eta erreziboa indarrean.
6. Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan, bizileku eta lan baimena. Edo hemen bizitzeko eta lan egiteko gaitzen dituen beste edozein dokumentazio bestela.
7. Osasuneko erregistro-zenbakia edo osasuneko baimena (giza kontsumorako elikagaien kasuan).
8. Nekazaritzako ustiategiaren txartela: produkzio propioaren kasuan.
9. Elikagaien manipulatzaile txartela edo baliokidea den ikastaroaren ziurtagiria, ontziratu gabeko produktuen salmentaren kasuan.

- Dokumentu guztiek pertsona edo enpresa beraren izenean egon behar dute.

- Dokumentu horien fotokopiak aurkeztu beharko dira. Ez da tramitatuko dokumentazioa irakurtezina edota osatugabea den inolako eskaerarik.

- Interesdunari berari jakinaraziko zaio baimena ematen zaion, betiere eskatutako baldintzak betetzen dituela aurrez egiaztatuta.

- Administrazioaren isiltasunak eskaera ez dela onartu adieraziko du.

<u>**Eskari orriak aurkezteko**</u>**:**

**Egoitza elektronikoa:** www. Zumarraga.eus

**Emailez:** kultura@zumarraga.eus

**Posta arrunta:** Zumarragako Udala (Kultura Saila). Euskadi Plaza, 1. 20.700 Zumarraga. Gipuzkoa.

**Herritarren arreta zerbitzua:** Zumarragako Udala.

**3.- <u>Baimenak</u>:** erabili ahal izango diren espazioen neurriak kasuan kasuko saltokiaren kokapenaren araberakoak izango dira:

- La Salleko patioa eta Urdaneta kalea: nekazaritzako makineria: 30 m$^2$-rainoko 3

*(Seguridad Social. El documento debe de estar a nombre del solicitante, no se aceptará documentación a nombre de la empresa, si el solicitante es una persona física.*

*5. Certificado de Seguro Responsabilidad Civil que cubra los riesgos de la actividad económica debidamente complementado y firmado por la aseguradora (impreso facilitado por el Ayuntamiento), o en su defecto póliza y recibo en vigor.*
*6. Permiso de residencia y trabajo o cualquier otra documentación que le habilite para residir y trabajar en el caso de persona extracomunitaria.*
*7. Nº de Registro sanitario o autorización sanitaria (productos alimenticios destinados al consumo humano).*
*8. Tarjeta de explotación agraria: en el caso de producción propia.*
*9. Carnet de manipulador de alimentos o en su defecto certificado del curso realizado, en el caso de venta de productos sin envasar.*

*- Todos los documentos deberán estar a nombre de la misma persona o empresa.*

*- Deberán presentarse fotocopias de los citados documentos. No se tramitará ninguna solicitud en la que la documentación sea ilegible y/o incompleta.*

*- La concesión de la autorización se comunicará a la persona interesada, previa comprobación del cumplimiento de los requisitos exigidos.*

*- El silencio administrativo tendrá efecto desestimatorio.*

***<u>Presentación de solicitudes</u>:***

***Sede electrónica:*** *www.zumarraga.eus*

***Email:*** *kultura@zumarraga.eus*

***Correo ordinario:*** *Ayuntamiento de Zumarraga (Departamento de Kultura). Euskadi Plaza, 1. 20.700 Zumarraga. Gipuzkoa.*

***Servicio Atención Ciudadano****: Ayuntamiento de Zumarraga.*

**3.- *<u>Autorizaciones</u>:*** *atendiendo a la ubicación se concederán autorizaciones para utilizar espacios de distintas medidas:*

- *Patio La Salle y calle Urdaneta: maquinaria*

espazio; 50 m$^2$-rainoko 4 espazio; 100 m$^2$-rainoko 12 espazio; 150 m$^2$-rainoko 5 espazio.

- Euskadi plaza: askotariko produktuak, elikagaiak, saskiak eta landareak: 3,65 m-ko 35 saltoki; 1,87 m-ko 29 saltoki; 6 m-rainoko 6 espazio.
- Euskadi plazako arkupeak eta Clara Larrañaga: Taloak: 6,75 x 3 m-ko espazio bat; 5 x 3 m-ko espazio bat; 3,5 x 3 m-ko espazio bat, 3 x 3 m-ko bi espazio.
- Legazpi kalea: elikadurako askotariko produktuak: 3 metroko 16 espazio (gehienez 2 espazio eskatzaileko).
- Zelai Arizti pilotalekua: taloak: 6x8 m-ko espazio bat.
- Renfeko trintxera eta Iparragirre kalea: askotariko produktuak: 6 m-ko 26 saltoki. / Taloak: 6 x 6 m-ko espazio bat; 6 x 8 m-ko espazio bat.
- Filipinar Uharteak, Urdaneta: uhalgintzako produktuak, burdinkiak: 3 metroko 24 espazio (gehienez 3 espazio eskatzaileko) / Taloak: 3 x 3 m-ko espazio bat.

**4.- <u>Aukeratzeko eta baimenak emateko prozedura</u>:**

Aukeratze prozedurak bermatu egingo ditu gardentasun, inpartzialtasun, bereizkeriarik ez eta publizitate printzipioak. Konkurrentzia publikokoa izango da, eta norgehiagoka sistemaren bidez ebatziko da.

Zumarragako Udalak, Feriaren berezko ezaugarriei eustearren, egoki iritzi dio ondoko balorazio irizpideak finkatzeari.

<u>Balorazio irizpideak</u>:

- Produktu motak. Lehentasuna emango zaie nekazaritzako produktuei: barazkiak, babarrunak, intxaurrak, hurrak, gazta eta esnekiak, eztia, ogia, buzkantzak, ahatearen deribatuak, gozogintza (marmelada, pastak, txokolatea, turroia eta pastelak), sagardoa, txakolina, landareak, nekazaritzako makineria, uhalgintza, burdinkiak eta artisaugintzako produktuak. Aipatutako produktuek 2 puntu jasoko dituzte, eta puntu 1 besteek.

  Barietatea bermatzeko, produktu mota bakoitzeko postu kopuruaren arteko oreka ezarriko da.

- Produktuak prestatzeko moduak. Lehentasuna emango zaio artisaugintzari, produkzio industrialaren aurretik. Horretarako kontuan hartuko dira bai **nekazaritzako ustiategiaren txartela izatea**, bai **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion**

*agrícola: 3 espacios hasta 30m2; 4 espacios hasta 50 m2; 12 espacios hasta 100 m2; 5 espacios hasta 150 m2.*

- *Plaza de Euskadi: productos varios alimentación, cestos y plantas: 35 puestos de 3,65 m.; 29 puestos de 1,87 m.; 6 espacios hasta 6 m.*
- *Soportales plaza de Euskadi y Clara Larrañaga: talos: 1 espacio de 6,75 x 3 m.; 1 espacio de 5 x3 m.; 1 espacio de 3,5 x 3 m.; dos espacios de 3 x 3 m.*
- *Calle Legazpi: productos varios alimentación: 16 espacios de 3 metros (máx. 2 espacios por solicitante).*
- *Frontón Zelai Arizti: talos: 1 espacio de 6 x 8 m.*
- *Trinchera de Renfe y calle Iparragirre: productos varios: 26 espacios de 6 m. / Talos: 1 espacio de 6 x 6 m.; 1 espacio de 6 x 8 m.*
- *Islas Filipinas, Urdaneta: guarnicionería, ferretería: 24 espacios de 3 metros (máx. 3 espacios por solicitante) / Talos: 1 espacio 3 x 3 m.*

**4.- *<u>Procedimiento de selección y obtención de autorizaciones</u>*:**

*El procedimiento para la selección garantizará los principios de transparencia, imparcialidad, no discriminación y publicidad. Será de concurrencia pública y se resolverá por el sistema de concurrencia competitiva.*

*El Ayuntamiento de Zumarraga ha entendido la idoneidad de marcar los siguientes criterios de valoración al objeto de mantener la especificidad propia de la Feria.*

*<u>Criterios de valoración</u>:*

- *Tipología de productos a la venta, primando la presencia de productos agroalimentarios: verdura, hortalizas, alubias, nueces, avellanas, queso y lácteos, miel, pan, buzkantza, derivados del pato, repostería (mermelada, pastas, chocolate, turrón y pasteles), sidra, txakolí; plantas, maquinaria agrícola, guarnicionería, ferretería; y productos artesanos. Obtendrán dos puntos los productos señalados y 1 punto el resto.*

  *A fin de garantizar la variedad, se establecerá un equilibrio entre el número de puestos por cada tipo de producto.*

- *Tipo de elaboración de los productos a la venta: primando los productos de producción propia frente a los industriales. Para ello se tendrá en cuenta **la posesión de tarjeta de explotación agraria**, así como **la inscripción***

**epigrafean ekoizle bezala izena emanda egotea**. Artisaugintzako produktuek 2 puntu jasoko dituzte, eta 1 puntu industrialek.

Lortzen diren puntuazioen arabera emango dira baimenak. Eskaerek ez badute Feriarako prestatutako eremua gainditzen, zuzenean esleituko dira. Eremu hori gaindituz gero, aipatutako aukeraketa irizpideen arabera esleituko dira. Puntuazio txikiena jasotzen duten eskaeren kasuan, zozketa bidez esleituko dira.

**5.- <u>Tasak</u>:** kokapenaren araberako tasak izango dira, honakoak:

- La Salleko patioa/Urdaneta: 0,51 €/m$^2$.
- Euskadi plaza eta Legazpi kalea: 15,40 €/m.
- Euskadi plazako arkupeak / Beste kokapen batzuk: 19,38 €/m.

(*) Eskualdeko produktoreei eta ekoizle txikiei (Eusko Jaurlaritzako enpresen sailkapenaren arabera) ez zaie tasarik kobratuko.

**6.- <u>Baimenaren baldintzak</u>:**

a) Baimendutako produktuak bakarrik saldu daitezke. Eskaeran argi eta garbi jarriko dira salgai jartzeko produktuak.

b) Baimena jasoz gero, horren titularrak pertsonalki jardun beharko du kasuan kasuko jardueran, bai zuzenean bai behar bezala baimendutako enplegatu edo laguntzaileen bidez, aurrez jakinaraziz azokako antolatzaileei nor egongo den baimendutako saltokian eta bere NAN zenbakia erraztuz.

c) Baimena aurtengo feriarako soilik izango da. Sekula ez du berritze automatikorako prozedurarik eragingo, ezta, baimena iraungi ondoren inolako abantailarik ere baimena jaso duen pertsonarentzat ez horrekin moduren batean lotutakoentzat ere.

d) Udalak edozein unetan egin ahal izango ditu eskatzen diren baldintzen eta zerga arloko zein gizarte segurantzarekiko betekizunen inguruko egiaztapenak. Egiaztatzen bada interesdunak ez dituela betetzen finkatu diren baldintzak, baimena bertan behera utzi

***como productor en el epígrafe correspondiente del Impuesto de Actividades Económicas***. *Obtendrán dos puntos los productos de producción propia y 1 punto los industriales.*

*Las autorizaciones se otorgarán atendiendo a la puntuación obtenida. En el supuesto de que las solicitudes no superen los metros habilitados para la Feria, se adjudicarán directamente. Caso de superarse, se atenderán en función de los criterios de selección marcados. Aquellas solicitudes que obtengan menos puntuación se atenderán por sorteo.*

***5.- <u>Tasas</u>:*** *en función de la ubicación, deberán abonarse las siguientes tasas:*

- *Patio La Salle/Urdaneta: 0,51 €/m2.*
- *Plaza Euskadi y calle Legazpi: 15,40 €/metro lineal.*
- *Soportales Plaza de Euskadi / Otras ubicaciones: 19,38 €/metro lineal*

*(*) No se cobrará tasa a los productores de la comarca y pequeños productores (según clasificación Gobierno Vasco).*

***6.- <u>Condiciones de la autorización</u>:***

*a) Sólo podrá ponerse a la venta los productos para los que se haya concedido la autorización. En la solicitud se indicarán claramente los productos solicitados para la venta.*

*b) La autorización conlleva la obligación de su titular de ejercer la actividad de forma personal, directamente o a través de las personas empleadas o colaboradoras debidamente autorizadas debiendo notificar a la organización esta circunstancia con anterioridad a la celebración de la feria facilitando el DNI de la persona que ocupará el puesto autorizado.*

*c) La autorización se limitará a la feria de este año. En ningún caso dará lugar a un procedimiento de renovación automática ni conllevará, una vez extinguida la autorización, ningún tipo de ventaja para la persona prestadora cesante o para personas especialmente vinculadas con ella.*

*d) El Ayuntamiento posee la facultad de realizar comprobaciones en cualquier momento respecto a los requisitos exigidos y las obligaciones fiscales y sociales. En el caso de que se compruebe que la persona interesada no cumple los requisitos establecidos, la*

daiteke.

**7.- <u>Baimenaren titular diren pertsonen betekizunak</u>:**

a) Kokapenaren arabera antolatzaileek ezarritako saltokiak muntatzeko eta jasotzeko ordutegiak errespetatzea.

b) Salmentarako kokagunea, okupatzeko baimendutako azalera, perimetroak eta lekuak errespetatzea. Horiek ez dute inoiz ere leku publiko edo pribatuetarako edo merkataritza edo industriako establezimenduetarako sarreretan egon behar. Era berean, ezin izango dira jarri beste establezimendu horien erakusleihoak edo trafikoko seinale edo besteren bat ezkutatzeko moduan. Kaleek bat egiten duten tokietan, oinezkoentzako pasaguneetan edo etxebizitza, denda edo ibilgailuentzat gordetako sarreretan ere ezingo dira jarri.

c) Antolakuntzak esleitutako pertsonen baimena eta NANa aurkeztu eta Udalak horretarako propio emango dien identifikazio txartela jendeak erraz ikusteko moduan jarri beharko dute. Hori egin ezean, edo baimenean jaso gabeko produktuak saltzen hasiz gero, kautelazko neurri gisa saltokia jasoarazi ahal izango da, baldin eta edozein bitarteko egokiren bidez eta aurrez eskatuta titularrak ez badu egiaztatzen horretarako baimena duela edo daukan baimenak beste produktu horiek ere saltzeko baimena ematen diola.

d) Uneoro bere produktuen kalitatearen arduradun izango dira, ezingo dute arriskurik eragin kontsumitzaileen osasun edo segurtasunerako, ezta kalitate edo kantitate aldetiko iruzurrik ere, eta ezingo dira produktu faltsifikatuak edo identifikatu gabeak izan, edo merkatura ateratzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak.

e) Postuan kartel eta idatzirik egonez gero, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko luke. Kartel hauek egiterakoan erabiliko diren mezuak, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako araudia errespetatu beharko dute, hizkuntza inklusibo ez sexista erabiliaz.

f) Azoka egunean, antolatzaileak eskumena izango du postuaren titularrarengatik galdetu, argazkiak atera eta produktua saltzeko baimena betetzen den ikusteko.

g) Azokara joan ezina, aurrez jakinarazi

*autorización podrá ser revocada.*

***7.- <u>Obligaciones de las personas titulares de la autorización</u>:***

*a) Respetar los horarios de montaje y recogida establecidos por la organización en función de la ubicación.*

*b) Respetar el emplazamiento, la superficie de ocupación autorizada, los perímetros y lugares para el ejercicio de la venta, que en ningún caso deberán coincidir con el acceso a lugares públicos, privados o establecimientos comerciales o industriales. No podrán, asimismo, situarse de forma que impidan la visibilidad de sus escaparates o expositores, señales de tráfico u otros indicativos. Tampoco podrán situarse en las confluencias de calles, pasos de peatones o entradas reservadas a viviendas, comercio o vehículos.*

*c) Presentar la autorización y DNI a las personas asignadas por la organización y exponer de forma fácilmente visible para el público la Tarjeta Identificativa que les sea facilitada por el Ayuntamiento a tal efecto. El incumplimiento de esta obligación o la venta de productos no incluidos en la autorización podrá dar lugar al levantamiento cautelar del puesto si su titular no acredita, por cualquier medio apto y previo requerimiento, que dispone de la autorización o que la autorización de que disponga permite la venta de los productos de que se trate.*

*d) Serán responsables en todo momento de la calidad de sus productos, sin que puedan ocasionar riesgos para la salud o seguridad de quienes lo consuman, supongan fraude en la calidad o cantidad, sean falsificados, no identificados o incumplan los requisitos mínimos para su comercialización.*

*e) Si se colocara algún tipo de cartel en el puesto el mismo deberá redactarse en euskara o en las dos lenguas oficiales. Los mensajes que se utilicen en la elaboración de carteles deberán respetar la normativa de igualdad entre mujeres y hombres, utilizando lenguaje inclusivo no sexista.*

*f) La organización podrá realizar las correspondientes comprobaciones acerca del titular del puesto, sacar fotografías y verificar si se cumplen las condiciones en las que se ha otorgado el permiso.*

*g) En caso de no poder asistir a la Feria deberá*

beharko da azokako antolatzaileei.

8.- <u>Araudia ez betetzea</u>:

Zazpigarren artikuluan jasotakoak ez betetzeak honako *Zigor araubidea* aplikatzea dakar.

9.- <u>Zigor araubidea</u>:

**9.1.- Arau-hausteak:**
Aplikagarriak diren xedapen sektorialek, batez ere jarduera komertzialari buruzko legediak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak babestekoak, ezartzen dutenaz gain, arau-hauste administratiboak izango dira araudi hau urratzen duten ekintzak edo ez-egiteak, eta udal administrazioak edo administrazioaren agenteek araudia aplikatzeko unean egin mandatu eta errekerimenduak ez betetzea.

**9.2.- Arau-hauste motak:**
1. Arau-hauste arinak izango dira honakoak:
   a) Kalez kaleko salmentarako baimendutako ordutegia ez betetzea instalazioa muntatzeko eta desmuntatzeko edo salmentan jarduteko unean.
   b) Salmentan aritu ahal izateko identifikazio txartela toki ikusgarrian ez edukitzea.
   c) Azoka egiten ari den bitartean ibilgailuarekin ibiltzea salmentarako finkatutako perimetroan, edo ibilgailuak aparkatzeko ez diren lekuetan aparkatzea.
   d) Emandako espazioa baino handiagoa hartzea oinezkoak igarotzeko, irisgarritasunerako edo mugikortasunerako eragozpenik sortu ez arren.
   e) Megafonia edo bozgorailuak erabiltzea, horretarako baimenik gabe.
   f) Ordenantza honetako aginduak ez betetzea dakarren eta larri edo oso larritzat jasota ez dagoen beste edozein ekintza edo ez-egite.

2. Arau-hauste larriak izango dira honakoak:

   a) Bi arau-hauste arin edo gehiago egitea, ebazpen irmo batez horrela jaso denean.
   b) Baimena edo NANa ez aurkeztea antolatzaileek izendatutako pertsonei.
   c) Baimenduez bestelako gauzak saltzea.
   d) Saltokia baimenduaz aparteko toki batean jartzea.
   e) Emandako espazioa baino handiagoa hartzea oinezkoak igarotzeko,

*comunicarse con anterioridad a los responsables de la organización.*

*8.- <u>Incumplimiento</u>:*

*El incumplimiento de los apartados recogidos en el artículo siete conllevará la aplicación del reglamento sancionador que se concreta a continuación.*

*9.- <u>Régimen sancionador</u>:*

***9.1.- Infracciones:***
*Sin perjuicio de lo establecido en las disposiciones sectoriales que resulten de aplicación, especialmente la legislación sobre actividad comercial y de protección de las personas consumidoras y usuarias, tienen la consideración de infracciones administrativas las acciones y omisiones que vulneren la presente Normativa, así como aquellas que representen la desobediencia de los mandatos y requerimientos de la Administración municipal o de sus agentes en aplicación de la misma.*

***9.2.- Tipificación de infracciones:***
*1. Tendrán la consideración de infracciones leves las siguientes:*
   *a) Incumplir el horario autorizado para el ejercicio de la venta ambulante, tanto para el montaje y desmontaje de la instalación como para el ejercicio de la actividad.*
   *b) No exhibir la tarjeta identificativa de venta en lugar visible.*
   *c) Circular con los vehículos por el perímetro de venta establecido durante la celebración del mercado o estacionarlos en lugares no destinados a ello.*
   *d) Ocupar más espacio del concedido sin que se cause perjuicio al tránsito peatonal, a la accesibilidad o a la movilidad.*
   *e) El empleo de aparatos de megafonía o altavoces, sin la debida autorización.*
   *f) Cualquier otra acción u omisión que constituya incumplimiento de los preceptos de esta Ordenanza y que no esté tipificada como grave o muy grave.*

*2. Tendrán la consideración de infracciones graves las siguientes:*
   *a) La comisión de dos o más faltas leves, cuando así haya sido declarado por resolución firme.*
   *b) No presentar la autorización y DNI a las personas asignadas por la organización.*
   *c) La venta de artículos distintos de los autorizados.*
   *d) La instalación del puesto en lugar distinto del autorizado.*
   *e) Ocupar más espacio del concedido cuando*

irisgarritasunerako edo mugikortasunerako eragozpenak sortuz.

f) Feriara ez agertzea, arrazoi justifikaturik zein jakinarazpen idatzirik gabe.

g) Datuak emateari uko egitea, edo ikuskaritza eta kontrol eginkizunetan ari diren udal agintari, funtzionario edota agenteek eskatutako informazioa emateari uko egitea, eta informazio oker, osatugabe edo gezurrezkoa ematea.

h) Baimendutako espazio-erabilerak baliaturik baimendu gabeko jarduera edo okupazioetan aritzea.

i) Jendearekiko edo oinezkoekiko errespeturik gabe, koakzioz edo mehatxuz jokatzea, eta baita bere eginkizunetan ari diren udal agintari, funtzionario edo agenteekin portaera horiek edo erresistentzia erakustea ere.

j) Araua hausten duten jarduerak bertan behera uzteko errekerimendua ez betetzea.

3. Oso arau-hauste larriak izango dira honakoak:

a) Kalez kaleko salmentan aritzea udal baimenik gabe. Baita saltokia titularra ez den edo titularraren senide, enplegatu edo lankide baimendua ez den batek eramatea ere (horietako pertsona batek eraman behar duenean saltokia, eskaera-inprimakian adierazi behar da).

b) Osasun aldetiko oso arau-hauste larriak direnak edo pertsonen segurtasunerako oso arrisku larria dakartenak.

c) Kontsumitzaileei kalte larriak eragiten dizkietenak.

d) Dokumentazio manipulatu edo gezurrezkoa ematea.

**9.3.- Arau-hausteen arduradunak**

1. Kalez kaleko salmentan aritzeko udal baimenen titularrak izango dira egiten dituzten arau-hausteen arduradunak. Era berean, berea izango dute ardura, jardueran aritzeko baimenduta dauden beste pertsonek arauak hausten dituztenean.
2. Arau-hausteen eraginez pertsona edo ondasunei –tartean direla ondasun publikoak, hala nola espazio publikoa eta bertan instalatutako altzari-elementuak– kalteak eragiten zaizkienean, titularrak izango dira, halaber, kalte horien erantzule. Ondasun publikoetan kalterik sortzen bada, eta arau-hausleak berak konpondu ezean udalak baimenduta, tasazioa egin eta zerbitzu tekniko gaituek egingo dituzte konponketa-lanak. Ondoren, horiek ordaintzea eskatuko zaio

*cause perjuicio al tránsito peatonal, a la accesibilidad o a la movilidad.*

*f) La no asistencia a la feria sin causa justificada, ni comunicación escrita.*

*g) La negativa a suministrar datos o a facilitar la obtención de información requerida por la autoridad municipal, personal funcionario y/o agentes en ejercicio de las funciones de inspección y control, así como el suministro de información inexacta, incompleta o falsa.*

*h) La realización de actividades u ocupaciones no autorizadas con ocasión de las utilizaciones del espacio público autorizadas.*

*i) La falta de respeto, coacción o amenaza al público y transeúntes, y las mismas conductas y la resistencia a la autoridad municipal, sus agentes o personal funcionario en el cumplimiento de sus funciones.*

*j) El incumplimiento del requerimiento sobre el cese de actividades infractoras.*

*3. Tendrán la consideración de infracciones muy graves las siguientes:*

*a) El ejercicio de la venta ambulante sin autorización municipal. Incluido regentar el puesto por persona que no tenga la condición de titular, familiar, empleada o colaboradora autorizado/a de su titular (debiendo indicarse este caso en el impreso de solicitud).*

*b) Las que concurran con infracciones sanitarias muy graves o supongan un muy grave riesgo para la seguridad de las personas.*

*c) Las que originen graves perjuicios a las personas consumidoras.*

*d) El suministro de documentación manipulada o falsa.*

***9.3.- Responsables de las infracciones***

1. *Las personas titulares de autorizaciones municipales para la venta ambulante serán responsables de las infracciones que se cometan por ellos, y por las personas autorizadas para ejercer la actividad en su nombre.*
2. *Las personas titulares serán así mismo responsables de los daños que con ocasión de la comisión de las infracciones se ocasionen para las personas o bienes, incluidos los bienes públicos, como son el propio espacio público y los elementos de mobiliario instalados en el mismo. En caso de daños en bienes públicos, salvo reparación por la propia persona infractora, autorizada por el Ayuntamiento, se procederá a su tasación y reparación por los servicios técnicos competentes, exigiéndole su reintegro.*

arau-hausleari.

**9.4.- Zigorrak**

1. Arau-hauste arinak ohartarazpenez zehatuko dira.
2. Arau-hauste larriak salmenta jarduera urtebetez etenez zehatuko dira. Jarduera berehala eteteko agindua eman ahal izango da, edota instalazioa kentzeko edota salgai diren gaiak konfiskatzeko.
3. Oso arau-hauste larriak salmenta jarduera behin betiko etenez zehatuko dira. Jarduera berehala eteteko agindua eman ahal izango da, edota instalazioa kentzeko edota salgai diren gaiak konfiskatzeko.
4. Etete zigorrak ez du udal tasak eta bestelako kontzeptuak ordaintzetik salbuesten arau-hauslea.
5. Zigorrarekin batera ezarri ahal izango da merkantzia faltsifikatu, iruzurrezko edo identifikatu gabea konfiskatzea, kontsumitzaileei arriskua sor diezaiekenean.

***9.4.- Sanciones***

1. *Las infracciones leves serán sancionadas con apercibimiento.*
2. *Las infracciones graves serán sancionadas con suspensión del ejercicio de la actividad de venta durante un año. Se podrá ordenar la inmediata suspensión de la actividad y/o el levantamiento de la instalación y/o el decomiso de mercancías a la venta.*
3. *Las infracciones muy graves serán sancionadas con suspensión del ejercicio de la actividad de venta de forma definitiva. Se podrá ordenar la inmediata suspensión de la actividad y/o el levantamiento de la instalación y/o el decomiso de mercancías a la venta.*
4. *La sanción de suspensión no exonera al infractor de la obligación de satisfacer las tasas municipales y demás conceptos.*
5. *Será compatible con la sanción el decomiso de la mercancía falsificada, fraudulenta, o no identificada que pudiera entrañar riesgo para las personas consumidoras*

**9.5.- Zigorren mailaketa**

Zigorrak ezartzeko unean neurria hartu beharko da, hain zuzen zigorraren maila arau-haustearen larritasunari egokitu dakion; horretarako, ondoko irizpide hauek segituko dira bereziki:

a) Osasunari edo segurtasunari kaltea eragiteko arriskua, egiaz eragindako kaltearen izaera edo neurriarekin batera.
b) Asmo txarrik izan den edo gauza errepikatua izan den.

***9.5.- Graduación de las sanciones***

*En la imposición de sanciones se deberá guardar la debida adecuación entre la gravedad del hecho constitutivo de infracción y la sanción aplicada, atendiéndose especialmente a los siguientes criterios:*

*a) El riesgo de daño a la salud o seguridad exigible, así como la naturaleza o entidad del perjuicio efectivamente causado.*
*b) La existencia de intencionalidad o reiteración*

**9.6.- Zigor prozedura**

Arau-hauste administratiboa eragin duten gertaerek arau-hauste penalaren maila izan dezaketenean, zigor prozedura abiatzeko organo eskudunak organo judizial eskudunari emango dio aditzera, eta utzi egingo dio abiatutako zigor prozedurarekin segitzeari, harik eta agintari judizialak erabakia ematen duen arte; dena den, udalak egoki deritzen kautelazko neurriak hartu ditzake.

Zigorrak ezartzeko unean, ondoren jasotzen den prozedurari segituko zaio.

1. Udal agintaritzak jasotako **akta.**
2. Kultura Departamentuak prestatutako **txostena.**
3. Arau-haustearen preskripzio epearen

***9.6.- Procedimiento sancionador***

*Cuando los hechos constitutivos de infracción administrativa pudieran ser constitutivos de infracción penal, el órgano competente para iniciar el procedimiento sancionador lo pondrá en conocimiento del órgano judicial competente, absteniéndose de proseguir el procedimiento sancionador incoado, en tanto la autoridad judicial no se haya pronunciado, sin perjuicio de la adopción por parte del Ayuntamiento de las medidas cautelares procedentes.*

*La imposición de sanciones se ajustará al procedimiento que se señala a continuación.*

1. ***Acta** recogida por autoridad municipal.*
2. ***Informe** elaborado por el departamento de Cultura.*
3. ***Acuerdo de incoación** dentro del plazo de*

barnean (6 hilabete, txostenak jasotzen duen gertaeren datatik kontatzen hasita) **espedientea abiatzeko akordioa** (Alkatearen dekretua).

4. Espedientea abiatzeko akordioa interesdunari **jakinaraztea** beronen azken helbide ezagunean (aktan jasoa izango da, edo erroldan edo Udalaren Hirugarrenen Fitxategian jasota dagoena).
5. Interesdunak **alegazioak** aurkeztea, jakinarazpenetik hasita **15 egun** baliodunako epean.
6. Kultura Departamentuak egindako berrespen txostena (edo ez berrestekoa).
7. **Erabaki proposamenerako** txostena, zigor espedientearen bideratzaileak emana.
8. Erabaki proposamena interesdunari **jakinaraztea**, berak aurkeztutako idazkian finkatutako helbidean.
9. Interesdunak **alegazioak** aurkeztea, jakinarazpenetik hasita 15 egun baliodunako epean.
10. Espedientea **erabakitzea**, espedientea abiatzeko datatik gehienez ere sei (6) hilabeteko epean. Alderdi interesdunari jakinaraztea (Alkatearen dekretua).
11. Erabakiaren kontrako **berraztertzeko errekurtsoa**, hala badagokio. Hilabeteko epea aurkezteko, eta hilabeteko epea erabaki eta jakinarazteko.

*prescripción de la infracción (6 meses), a contar desde la fecha de los hechos contenida en el informe. (Decreto de Alcaldía)*

4. ***Notificación** al interesado del Acuerdo de Incoación en el último domicilio conocido (el recogido en el Acta o en el que conste su empadronamiento o en el Fichero de Terceros del Ayuntamiento).*
5. *Presentación de **alegaciones** por la parte interesada. Plazo de **15 días** hábiles desde la notificación.*
6. *Informe de ratificación o no del departamento de cultura.*
7. *Informe **Propuesta de Resolución** elevado por el instructor del expediente sancionador.*
8. ***Notificación** a la parte interesada de la Propuesta de Resolución en el domicilio fijado en el escrito presentado.*
9. *Presentación de **alegaciones** por la parte interesada. Plazo de 15 días hábiles desde la notificación.*
10. ***Resolución** del expediente dentro del plazo máximo de seis (6) meses desde la fecha de incoación. Notificación a la parte interesada. (Decreto de Alcaldía)*
11. ***Recurso de reposición**, en su caso, contra la resolución. Plazo de 1 mes para su presentación y de 1 mes para su resolución y notificación.*

Zumarragan,

ALKATEAK,

ZUMARRAGAKO UDALA
ALKATEA

Firmado por: 15386641D MIKEL SERRANO (R: P2008600E)
Fecha : 02/09/2022 - 10:56:37